

## **Andolin Eguzkitza**

### **BAIXO AS SOMBRAS DA MORTE**

Estou seguro de que non me resta moito tempo. Endemáis tampouco o desexo, porque me atopo canso. Non me queda moita enerxía física, hora é, coido, de que me vaia. Iso é o que de verdade sinto no máis fondo do meu corazón. E cando escribo isto, coméceme o medo, porque eu tiven sempre un carácter moi distinto. Sempre favorable a avanzar, sempre disposto a seguir cara ó futuro, de vagariño, repleto de forza e coraxe. Mais, aínda que remanezan aí, decote, as esperanzas racionais que foron o norte da miña vida, ollando o meu interior, non sinto desexos de seguir adiante, non percibo a chama do lume que sentín sempre. Quero deitarme, estar en paz, e dende iste intre no que a friaxe xa se apoderou da miña ánima, ter a esperanza de que Deus sexa xeneroso comigo, pregar para que cando Deus me chame á súa beira me devolva tamén o seu quentor. Que me reuna, canto antes, ó seu carón, porque me atopo só.

O meu tempo esgótase e non fica ren, agás os meus fillos. Mesmo eles ¿qué son eu hoxe máis que unha carga penosa?. Coidanme e preocúpanse de min porque me queren, pero están obrigados a sacar adiante as súas vidas. Os fillos trouxeron netos ó mundo e non lles sobra vagar para ocuparse diste home vello, que vive tan lonxe. Si, síntome só, o meu tempo vai rematando e convén que deixe vivir ós outros, que non me convirta nun pesadelo, que se lembren de min con amor e dignidade, non coma un ancián molesto, feitor de innumerabeis atafegos. Ademais, a esta idade e no meu estado ¿para que seguir adiante?. Para que, sucesivamente, ¿se vaian estragando tódalas partes do meu corpo? ¡Que Deus me perdoe esta altiveza! Porque, ¿hai algo máis belido que ter loitado toda a vida polo pobo que levei a cotío no meu corazón? ¿Como podo queixarme, pois, de ter vivido cheo de boas esperanzas e ateigado de arrouzo para seguir adiante? Algún babeco quererá ver merecemento nesto. Mais ¿como pode haber mérito en realizar algo que quixen, que me gustou? ¿por apoiar o que ameí radicalmente? ¿Por defender o que me enchía de lecer e pracer, a xustiza? Teño que dar gracias a Deus por pertencer a un pobo tan fermoso. En fin, por ofrendarme tantas oportunidades para avanzar na vida, isto é, anque fose porque non había máis remedio, por poñer a miña dispocición tantas ocasións vitais, e ¡que ocasións! Mentras escrito iste diario, corróeme a mesma dúbida, que acostuma a pesar a quen se atarefa por si mesmo. Cando nos poñemos diante dun espello e nos esforzamos en examinarnos dun xeito obxetivo: pésame a dúbida de si seremos verdadeiramente francos. Non estou seguro de si por medio do que penso e escribo estou enganándome a min mesmo, de si non estarei empregando unha argallada máis para runfarme, ou si, como preferiría que fose, estou expresando un testemuño sincero do meu corazón. Non sei si leerá alguén estas follas algunha vez. Seguramente non, porque non as escribo con esa finalidade, e ademais, tanto me ten; mais si cairan en mans de alguén, que non pense, por favor, que as escribo por fachenda, nin porque queira probar nada, nin que escribo para espertar pasmo no lector, senón que o fago para desafogarme, co propósito de analizar a miña conciencia a través da escritura, e agora que, no anaco de vida que fica por finalizar, o pasado convertíuseme en guieiro, coa esperanza de ver máis nidio o norte. Iturbe, onte, tomando un café comigo, preguntábame por aqueles tempos do principio, polos embrións do movemento nacionalista en Navarra, que traballo facíamos, cantos batzokis tíñamos, cantos afiliados, e se era caristiano o labor. E eu mesmo me sorprendín da boa memoria que aínda reteño.

## **Herioaren itzalpeetan**

Seguru nago denbora luzeegirik gelditzen ez zaidana. Gura ere ez dut bereziki denbora luzeagorik gura, nekatuta bainago. Kemen fisikorik asko ez zait geratzen, eta bada garaia, nik uste, alde egin dezadan. Hori da benetan bihotz-bihotzean senditzen dudana. Eta hau idazten dudanean ikaratu egiten naiz, ni neu izakeraz bestelakoa izan bainaiz beti. Beti aitzina jotzearen aldeko, beti indarrez eta kuraiaz etorkizunari buruz urratsez urrats segitzearen aldeko. Baina bizitzaren iparburu izan ditudan esperantza arrazionalak betiko legez hor egoteagatik ere, neure golkora begiratuta ez dut aurrera segitzeko gogorik senditzen, ez dut beti senditu dudan suaren garra somatzen. Etzan nahi naiz, bakean egon, eta hotza neure barruaren ugazaba bilakatu zaian une honetatik Jainkoak nirekin eskuzabal izatea espero, Jainkoak bere ondora deitzean bero hori osterera eman diezadan otoitz egin. Bil nazala ahalbait arinen beraren ingurura, bakarrik nago eta.

Nire denborak egin du eta seme-alabak salbuetsita baita nireak ere. Eta seme-alabentzat zer naiz gaur egun zama astun bat baino! Maite nautelako zaintzen naute eta nitaz arduratzen, baina beraiek ere beren bizitza aurrera atera behar dute. Seme-alabek hainbat iloba ere ekarri dituzte, eta ez daukate hainbeste astirik hain urrun bizi den gizon zahar honentzat lan egiten ibiltzeko.

Bai, bakarrik senditzen naiz, nire denbora amaituz doa eta komeni da besteei bizi izaten utz diezaiedala, ez nadila karga bihur, nitaz maitasun eta duintasunez gogora daitezela, eta ez agure gogaikarri eta hainbat trabailuren iturburu agortezin gisa. Gainera, adin honekin eta nire egoeran zertako aurrera segi?

Gorpuzkeraren zati guztiak, banan-banan, matxuratuz joan dakizkidan? Jainkoak barkatuko al dit harrokeria guztiau! Zeren beti bihotzean ukan dudana herriaren alde bizitza osoan burruka egin ahal izatea baino ederragorik ba ote dago? Nolaz kexa ninteke, bada, itxaropen onez beterik bizi izateagatik, eta aitzina egiteko oldarrez zamaturik? Ergelen batek merezimendua ikusi nahiko du horretan. Baina nolatan merezimendua, nahi izan dudana, gustatu izan zaidana egiteagatik! Errotik maite izan dudana aldezteagatik! Atseginez eta plazerrez betetzen ninduena, justizia, defendatzeagatik! Eskerrak eman behar dizkiot Jainkoari hain herri ederra emateagatik. Azken batean, bizitzan aurrera egiteko hainbeste aukera eta parada eskaintzeagatik, alegia, besterik ezean baino ez bada ere, bizitzeko abaguneak, eta zelakoak gainera, beti eskura uzteagatik.

Egunkari hau idazten nagoela, nork bereak erabiltzen ohi dituen alha izaten ohi zaion zalantza bera dabilkit orain barrutik. Ispiluaren aurrean jartzean bezala eta geure burua modu objektibo batez begiratzen saiatzen garenean: benetan egitiak garatekeelako zalantza zait alha. Ez nago seguru pentsatzen eta idazten ari naizenaz neure buruari iruzur egiten ez ote nagoen, neure burua goraiatzeko beste trikimailu bat erabiltzen ari ez ote naizen, edota gurago nukkeen legez, neure bihotzaren adierazpen egiazko bat egiten nagoen. Ez dakit orri hauek inork inoiz irakurriko ote dituen. Seguru asko ez, ez baititut horretarako idazten, eta gainera ez dit bat ere ardura, baina inoren eskuetan jausiko balira, ez beza otoi pentsa harrokeriaz idazten ari naizenik, ezeren erakustekotan nabilenik, edota bera den irakurle horrengan inongo mirespenik sortzearen idazten nagoenik, ezpada neure burua asaskatzekotan egiten dudala, idaztearen bidez neure kontzientzia aztertzeke gurariaz, eta dagoeneko oraino betetzeke dudana bizitzaren apurraren iparburu iragana bihurtu zaidanean, iparburu hori argiago ikusteko esperantzaz.

Iturbek atzo, nirekin kafea hartzen egon zelarik, hastapeneko garai haietaz galdetzen zidan. Nafarroako mugimendu abertzalearen hasikinez, zer-nolako lanak egiten

genituen, zenbat batzoki geneuzkan, zenbat bazkide? Eta lana zaila ote zen? Eta ni neu harritu egin nintzen oraino ere daukadan oroimen onarekin.